

HABEren Prestakuntza Plana 2023

EBAZPENA, 2023ko maiatzaren 16koa, HABEren zuzendariarena, HABEren 2023ko Prestakuntza Plana onartzen duena.

Azaroaren 25eko 29/1983 Legeak, Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea sortu eta euskaltegiak araupetzekoak, HABEri agintzen dio helduen euskalduntzearen sustapena, eta, horretarako, hainbat eginkizun egozteaz gain, helduen euskalduntzean dihardutenen prestakuntzaz eta eguneratzeaz arduratzen du erakundea bere 12. artikuluan.

Era berean, HABEren arau organikoak onartzen dituen 34/1996 Dekretuan, otsailaren 13koan, azaroaren 25/1983 Legean aurreikusitako en ildotik, HABEren Erregistroan bildutako edo bilduko diren euskaltegiatako irakasleak eguneratu eta etenik gabe hezteko egitasmoen lanketa egotzen dio erakundeari, Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzuaren bitartez.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2019ko abenduaren 5eko Aginduak helduen euskalduntzearen esparruan HABEk onartzen dituen prestakuntza-planen ezaugarriak arautzeko eta prestakuntza-jardueren homologazio-betekizunak ezartzen ditu.

HABEren Prestakuntza Aginduaren 2. artikuluan zehaztutakoaren arabera, HABEk helduen euskalduntzearen esparruan onartuko dituen prestakuntza planen xedea da erakunde honek azaroaren 25eko 29/1983 Legeak eta lege hori garatzeko onartu diren xedapenetan ezarritakoaren babesean garatu behar duen Prestakuntza-arloko jardueraren lerro estrategikoak zehaztea, eta urtez urteko prestakuntza-jarduerak antolatzeko gidalerroak aurreikustea. Era berean, Aginduaren 6. artikuluan ezartzen da HABEk, dagokion prestakuntza-planaren egituraren baitan, antolatutako prestakuntza-jarduerak urtero onartuko dituela HABEren zuzendariak Hizkuntzaren Didaktika Zerbitzuaren proposamenez.

Lan-eginkizunak eraginkortasunez betetzeko, funtsezkoa da prestatzea edozein lan-arlotako teknikari eta adituentzat, eta, horregatik, helduen euskalduntzean diharduten langileek ere etenik gabe dute prestatu beharra. HABE erakundearen berebiziko garrantzia du prestakuntzak, eta, ondorioz, arreta berezia eskaini izan zaio helduen euskalduntzean diharduten profesionalen prestakuntzari HABEren sorreratik beretik, nabariak baitira hizkuntzen irakaskuntzan aldi-aldi gertatzen diren aldaketak: ikasleriaren profila, ingurune soziolinguistikoa, aurrerapen teknologikoak, ekarpen berriak arlo akademikoan, etab.

Helduen euskalduntzean diharduten langileen prestakuntzaren baitan dago, neurri handi batean, euskararen ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen berritzea, garatzea eta etenik gabe hobetzea.

Testuinguru honetan, euskalduntzearen indarguneen eta ahulezien analisiak ikuspegi dinamikoak izatea dakar berekin, eta, Prestakuntza Plana tresna bizia denez, prestakuntza-jarduerak gehitu, aldatu edo kendu daitezke behar berriak sumatzen badira.

Horren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT

1. HABEren 2023ko Prestakuntza Plana onartzea, Ebazpen honetako eranskinean dauden zehaztapenen baitan.
2. Prestakuntza Plan hau 2023-2024 ikasturteak ekar ditzakeen irakasleen behar-premien arabera ikastaro berrietara geratzea zabalik.

Donostian, 2023ko maiatzaren 16an

HABEren zuzendaria
JOKIN AZKUE ARRASTOA

I.ERANSKINA HABE-REN 2023KO PRESTAKUNTZA-PLANA

Kodea	Izenburua	Irakasleak	Iraupena	Noiz-non
1217	Jardun bikoia helduen euskalduntzean (I) Euskaraz	Ana Rodríguez Arangoa / Iñaki Murua Anzola	40	Online 2023/01/09-2023/03/05 (asinkronoak)
1218	Jardun bikoia helduen euskalduntzean (II) Euskaraz	Ana Rodríguez Arangoa / Iñaki Murua Anzola	40	Online 2023/03/06-2023/05/15 (asinkronoak)
1219*	Taldean lankidetzat sustatzeko gakoak	Teresa Aranzibia Aguirrezabal	10	2023/01/24, 31 eta 02/07, 14 HABEren egoitza nagusian
1230*	Taldean lankidetzat sustatzeko gakoak	Teresa Aranzibia Aguirrezabal	10	2023/02/28 eta 03/07, 14, 21 HABEren egoitza nagusian
1221	Claves y recursos para el desarrollo de las habilidades orales / Ahozko trebetasunak lantzeko gako eta baliabideak Gaztelaniaz	Sara Robles Ávila	20 ordu	Aurrez aurre + online 2023/06/19, 20 eta 21 Euskaltzaindiaren egoitzan (Donostia) Gainerako orduak online
1222	Testu zuzenetik harago: egokitasunerako estrategiak Euskaraz	Patxi Petrirena Altzuguren	20 ordu	Aurrez aurre + online 2023/06/22, 26, 28 eta 30 Euskararen etxean (Bilbo) Gainerako orduak online

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

1223	Cómo diseñar y llevar al aula tareas de mediación / Nola diseinatu eta gauzatu bitartekotza-jarduerak ikasgelan Gaztelaniaz	Carmen Ramos Méndez	20 ordu	Online 2023/07/07, 10, 11 eta 14 (sinkronoak) Gainerako orduak asinkronoak
1224	Bideoak ikasprozesuan: aukerak eta baliabideak Euskaraz	Amaia Arroyo Sagasta	20 ordu	Online 2023/07/11, 14 eta 17 (sinkronoak) Gainerako orduak asinkronoak
1225	Menos corregir y más acompañar en el aprendizaje: el poder del feedback / Gutxiago zuzendu eta laguntza handiagoa eman ikaskuntzan: feedbackaren indarra Gaztelaniaz	Teresa Guasch Pascual / Anna Espasa Roca	20 ordu	Online 2023/07/03, 04, 05 eta 07 (sinkronoak) Gainerako orduak asinkronoak
1226	¿Cómo diseñar y poner en práctica un proyecto motivador? ALBP / Nola diseinatu eta praktikan jarri proiektu motibatzaile bat? POHI Gaztelaniaz	Carolina Castro Huércano	20 ordu	Aurrez aurre + online 2023/09/18, 19 eta 20 Deustuko Udaltzegan (Bilbo) Gainerako orduak online
H13-23	Jardun biko irakaskuntzarako gakoak: oinarritzko erremintak eta estrategiak / Claves para la enseñanza semipresencial: herramientas y estrategias básicas Euskaraz eta gaztelaniaz	Diana Pastoriza Espasandín / María Fernández González	10 ordu	Aurrez aurrekoa 2023/07/12 eta 13 Miramar jauregian (Donostia)
1227*	Lidergoaren garapena	Teresa Aranzibia Aguirrezabal	15	Aurrez aurre Euskararen etxean (Bilbo)
1228*	Testu zuzenetik harago: egokitasunerako estrategiak	Patxi Petrirena Altzuguren	11	2023/07/03-04 IKA Euskaltegian
1229*	Testu zuzenetik harago: egokitasunerako estrategiak	Patxi Petrirena Altzuguren	11	2023/09/26-27 IKA Euskaltegian
1230*	Taldean lankidetzat sustatzeko gakoak	Teresa Aranzibia Aguirrezabal	10	2023/05/08, 18, 22 eta 06/05 HABEren egoitza nagusian

*Berariar antolatutako ikastaroak (euskaltegien eskariz eta HABEko lankideentzat antolatutakoak)